

OHIKO OSOKO BILKURA 02/13

UDALAK 2013ko OTSAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

ZINEGOTZIAK:

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Estefanía Morcillo Cerdan and.

M^a Jesus Egido Moreno and.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Jose Antonio Cuesta Sole jn.

Iñaki Arratibel Olaziregi jn.

2013ko otsailaren 26an ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria.

KONTUHARTZAILEA:

Antxon Garcia Nadal jn.

IDAZKARIA:

Arantxa Urain Mendiburu and.

1.- AKTAK ONARTZEA: 2012-12-20 ETA 2013-01-29. - 2012ko abenduaren 20an eta 2013ko urtarrilaren 29an egindako bileren aktak onartu dira.

2.- 2013KO URTARRILAREN 24TIK 2013KO OTSAILAREN 21ERA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA. – 2013ko urtarrilaren 24tik 2013ko otsailaren 21era bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da:

- * Alkate jn.
- * Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
- * Kiroletako delegatu jn.
- * Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.
- * Politika Sozialeko delegatu jn.

3.- BARATZE PARKEKO ARAUTEGIA. - Aztertu dira Udal baratzeen emakida eta erabilerarako araudi orokorra eta Hirigintza eta Ingurumen Saileko zerbitzu teknikoek egindako txostenak.

Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza Batzordeak 2013ko otsailaren 22an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

Lehena.- Udal baratzeen emakida eta erabilerarako araudi orokorrari hasierako onarpena ematea.

Bigarrena.- Aipatutako dokumentua jendaurrean ikusgai jartzea, hogeita hamar (30) egunez, interesatuek erreklamazioak edota sujerentziak aurkezteko aukera izan dezaten. Aipatu epea hasierako onarpenaren iragarkia GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatuko da.

Hirugarrena.- Aipatu epean inolako erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, erabaki hau behin betikotzat joko da eta Araudiaren testu osoa GAOn argitaratuko da.

4.- "AUTOBUSA MIKROBUSA, S.L."K EMATEN DUEN HERNANIKO BIDAIARIEN GARRAIO PUBLIKO KOLEKTIBOAREN ZERBITZUAREN TARIFAK BATERATZEKO SISTEMA EZARTZEKO LANKIDETZA HITZARMENA. - Tokiko Gobernu batzarrak 2012ko martxoaren 6ko bileran hitzarmen hau onartu zuen: "Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Hernaniko Udalarena arteko lankidetzaren hitzarmena, Hernaniko herri barneko garraio publikoa txartel bakarrean integratzeko". Hitzarmena 2012ko martxoaren 10ean formalizatu zen.

Tokiko Gobernu batzarrak 2013ko urtarrilaren 25eko bileran hitzarmen hau onartu zuen: "Gipuzkoako garraio publiko kolektiboaren tarifak bateratzeko sistema ezartzeko lankidetzaren hitzarmena". Eta alkateari hitzarmena sinatzeko ahalmena eman zion.

"Autobusa Mikrobusa SL" enpresa da Hernaniko herri barruko bidaiarien garraioaren zeharkako kudeaketaren esleipenduna, administrazio-emakida bidez, 2010eko irailaren 30ean formalizatutako kontratuaren arabera.

Espedientea aztertuta eta udal teknikariek kontsultatuta.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

1.- "Autobusa Mikrobusa SL" k ematen duen Hernaniko bidaiarien garraio publiko kolektiboaren zerbitzuan tarifak bateratzeko sistema ezartzeko lankidetzaren hitzarmena onartzea eta alkate jaunari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

2.- Onartutako hitzarmenaren ondorioz, eta Hernaniko bidaiarien herri barruko garraio zerbitzua emateko emakidaren baldintzen pleguaren 17. artikulua dioena kontuan hartuta, hau baita: emakidadunak aplikatu beharreko tarifak udalak unean-unean erabakitzen dituenak izango direla:

- Herri barruko billetearen tarifak izango dira Gipuzkoako garraio arloko lurralde agintariek martxan jarritako tarifa sistema berria aplikatzearen ondorioz ateratzen direnak.

5.- 2013KO MARTXOAK 8 - ADIERAZPEN INSTITUZIONALA. – Goenaga Jaunak (Bildu) mozio hau irakurri du:

“2013ko martxoak 8 – Adierazpena Instituzionala.

Hernaniko Udaleko Bildu udal-taldeak honako adierazpen instituzionala aurkezten du, 2013ko martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko eguna de eta:

Euskal Herriko emakumeak krisi sistemiko batean murgilduta bizi dira, eta, egoera horren aurrean, Hernaniko Udal honetatik gogora ekarri nahi dugu martxoaren 8ko oroitzapenak esparru jakin batean kokatu behar direla, hain zuzen ere feministek emakume guztientzako eskubideen alde betidanik sustatutako aldarrikapenaren eta erresistentziaren esparruan.

Emakume feministek 1908an aldarrikatutako errebindikazio horrek indarrean jarraitzen du 2013an, are indar handiagoarekin gainera, eta horregatik lanean jarraitu behar dugu, era askotara zapaltzen eta menderatzen gaituen sistema kapitalista eta patriarkala errotik aldatzeko.

Eta borroka hori are garrantzitsuagoa da, halaber, behin eta berriz aplikatzen ari diren dekretuak, erreformak eta gizarte-murrizketak kontuan hartzen baditugu, urtetako borrokan gizartearen, lanaren, ekonomiaren eta politikaren arloetan irabazitako eskubideen zuzeneko galera dakarten neurrian. Finantzek eztanda egin eta zorraren iruzurra nabarmendu aurretik, emakumeok bide luzea genuen egiteko, eskubide guztiak geureganatu eta lortzeko. Alabaina, une honetan atzera egiten ari gara, diskurtso atzerakoi batek emakumeok berriz ere adingabe moduan tratatu nahi gaituelako, erabakitze gaitasunik gabe eta bizimodu prekario batera kondenatuta.

Atzerakada horren adierazgarri ditugu, batetik, abortuaren legearen erreforma iragartzen ari direla, erreforma ultrakontserbadorea eta eliza katolikoaren agintarien eskutik datorrena, eta, bestetik, inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko laguntzetarako egundoko murrizketak, lan horren karga berriz ere familien —eta familien barruan, emakumeen— esku utziko duena, eta, horrenbestez, emakumeok prekaritate handiko eta errekonozimendu txikiko jardun horretan aritzera behartuko gaituena.

Urtero-urtero, martxoaren 8an emakumeok borroka feminista eguneratzen dugu, mundu berri bat sortzeko bidean. Mundu berri horretan, emakumeok gure bizitzaren eta gure gorputzaren jabe izango gara, bizimodu duina izango dugu, gure orain ekonomiko eta soziala eraikiko dugu, eta, edonon gaudela ere, subjektu politikoak eta etorkizun politikoaren zuzeneko eragileak izango gara.

Gure ustez, xede horiek guztiak lortzeko, funtsezkoa eta estrategikoa da erakundeek berdintasunerako politika publikoak lortzeko baliabideak jartzea, eta, ildo horretan, argi eta garbi adierazi nahi dugu toki-erakundeen eskutik xede horretarako programak eta baliabideak kentzeko asmoarekin etor litekeen erreforma oro guztiz gaitzetsi egingo dugula.

Gainera, Udal honek honako lehentasun hauek ere baditu:

- Berdintasunerako politika publikoak garatzea, politika horien eskura aurrekontu eta teknikari egokiak jarritz.
- Programak eta proiektuak aztertu, garatu eta ebaluatzerakoan udalaren gobernu-ekintza orok genero-ikuspegia kontuan hartzeko neurriak bultzatzea.
- Emakumeen elkarteekiko eta mugimendu feministarekiko elkarrizketa politikoa indartzea.

- Indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko politikak eta berdintasunerako politikak etengabe uztartzea.

Azkenik, mugimendu feministak betidanik emakumeen eskubideen alde egindako erresistentzia eta borroka eskertu nahi dugu, eta, ildo horretatik, mugimendu horrek gure herrian martxoaren 8rako egindako deialdiarekin bat egiten dugu zehazki, arratsaldeko 19:30etan Plaza Berriatik abiatuko den Marijirarekin.”

MOZIOA AHO BATEZ ONARTU DA.

6.- 197/2006 DOKTRINA: ZIGOR GEHIGARRIAREN ANKERKERIA. – Lujanbio andreak (Bildu) mozio hau irakurri du:

BILDUREN MOZIOA: 197/2006 DOKTRINA: ZIGOR GEHIGARRIAREN ANKERKERIA.

“2006ean, Espainiako Auzitegi Gorenak, kode penal zaharrean epaituriko presoek zegozkien erredentzioak, kode hark ezartzen zuen bete beharreko gehienezko 30 urteei baino, ezarritako kondena osoari aplikatzeko doktrina ebatzi zuen. Hau da, 1973-ko kode penalak, kondena kunplitzeko gehienezko urte kopurua 30 urteetan ezartzen zuen eta erredentzioen bidez, bete beharreko urte kopurua jaisten zen. Erredentzioen aplikazioak bete beharreko kondena 15 urtetan ezartzen zuen automatikoki, eta horrez gain, erredentzio gehiago eskuratu zitezkeen ikasketekin edo bestelako jarduerekin, bete beharreko kartzelaldi denbora jaitsiz.

1995ean eta 2003an kode penalean aldaketak eman ziren. Aldaketa horiek euskal presoek aurkako neurriak gogortzera bideraturik zeuden, preso diren pertsonen dagozkien eskubideak salbuespenez murriztuz. 95-ean kondena betetzeko urte mugak 30, 25 eta 20 urteetan ezarri, eta erredentzioak desagertu egin ziren. 2003-an berriz, kondena betetzeko muga 40 urtera igo zen.

Kode penal berriak ezarritako neurriak ez direnez erretroaktiboak, hau da, ezin direnez aplikatu aurretiaz epaituriko pertsonen aurka, Auzitegi Gorenak 197/2006 doktrina erabili zuen ateratzeaz zeuden euskal presoek kondena luzatzeko.

Ordutik hona, 83 euskal preso politikori ezarri zaie doktrina. Horietako 12, garaian ezarritako kondenez gain doktrinaren kondena luzapena bete ostean atera dira kalera. Gaur egun, 67 dira doktrina hau aplikaturik kartzelan aurkitzen diren presoak. Horietatik 54 kondenaren luzapena ari dira betetzen, eta beste 13-ri doktrina aplikatu zaie ezarri zitzaizkien kondena bete aurretik. Beste 4 lagun kalean daude, baina doktrina ezarria dute.

Doktrina honen bidez, euskal presoek aurka bizi arteko zigorra aplikatzen da. Ondorioak aski krudelak dira, 95 izanik 20 urte baino gehiagoko espetxealdiak igaro dituzten pertsonak. Gaur egun 29 presoek 25 urte baino gehiago daramazkete espetxean. Neurri honek, oinarrizko giza eskubideak denak urratzen ditu. 20 urtetik gora espetxean emateak itzuliezinak diren ondorio fisiko eta psikologikoak dakartzala frogatua dago.

ESPAINIAKO AUZITEGI KONSTITUZIONALAREN EBAZPENA 197/2006 DOKTRINARI BURUZ

2012an Auzitegi Konstituzional espainolak, 2006an indarrean jarritako doktrinaren kontrako helegiteak ebatzi ditu, doktrinaren aplikazioa babestuz. Bere ebazpenean ez du doktrinaren funtsari buruzko azalpenik ematen eta irizpidea aldatzeko aukera, tribunalei dagokiela argudiatzen du.

Auzitegi Konstituzionalak, 47 erabaki jakinarazi ditu (beste 20 kasu erabakitzeke). Horietatik 3 tramitera hartzea ukatuak izan dira, 22 tramitera onartuak, eta beste 3ren kasuan anparoa onartua izan da, hiru preso hauek kalera atera direlarik. Beste 19 kasu ukatuak izan dira.

ESTRASBURGOKO GIZA ESKUBIDEEN TRIBUNALAREN EBAZPENA

Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak ordea, Ines Del Río euskal presoaren kasuan oinarriturik, 197/2006 doktrina ez legezkoa eta oinarritzko eskubideen aurkakoa dela ebatzi zuen 2012ko uztailean. Ebazpena, AHO BATEKOA izan zen.

Tribunal honen ebazpenak, doktrinak, askatasunerako eta segurtasunerako oinarritzko eskubideak urratzen dituela dio, eta ez dela legezkoa aurrez ezarritako zigorra luzatzea. Ines del Río preso berehala aske uztea eta 30.000 euroekin kalte moralak berrezartzea ebazten du era berean.

Ebazpenaren eragina ez da Inesen kasura mugatzen, doktrinaren funtsa aztertu ondoren eta berau jotzen bait du, ez legezko. Horrek doktrina bera, bertan behera uzteko bidea zabaltzen du; formalki Espainiar gobernuaren esku dagoen erabakia da hori.

Edonola ere, Ines del Ríoaren inguruko ebazpena LOTESLEA DA, Europako Giza Eskubideen Konbentzioaren 46. artikulua, ESTATUAK GORTEAREN EBAZPENAK ONARTZERA BEHATZEN BAIT DITU.

Espainiako Estatuak helegitea tarteratu du. Helegite hau, Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalarean berrikusiko da datorren martxoaren 20. Tarte horretan Ines del Río kartzelan mantentzera ere, espainiar estatuak egiten duen beste lege-hauste bat gehiago da.

Estatu batek Estrasburgoko Tribunalaren ebazpen bat ez onartzea eskandalo politiko eta juridiko izugarria da. Espainiar estatuak gai honen aurrean duen jarrerak agerian uzten du euskal presoek aurka salbuespeneko legedia eta bitartekoak aplikatzen direla. Presoek eta beraien senitartekoek dituzten eskubideak urratuz eta nazioarteko Giza Eskubideen Arauen gainetik pasaz.

Honen aurrean, Hernaniko Udalak honako eraki hau hartzen du:

- 1.- 2012ko uztailean, Estrasburgoko Giza Esku-bideen Tribunalak, aho batez, Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren 197/2006 doktrina (Parot doktrina gisa ezagutu dena), ez legezkoa eta oinarritzko eskubideen aurkakoa dela ebatzi ondoren, berau bertan behera uzteko eskatzen du udal honek. Ondorioz eta nazioarteko giza eskubideen legeria aplikatuz, 197/2006 doktrina aplikatu zaien euskal preso guztiak berehalakoan aske uzteko eskatzen dugu.
- 2.- Euskal Herrian bizi dugun itxaropen eta konponbide aukeraren aurrean, euskal presoek aurkako salbuespeneko legeria bertan behera uzteko eskatzen du udal honek.
- 3.- Ebazpen honen berri, herritarrei eta Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako Komisionatua den Nils Muiznieks Jaunari ematea erabakitzen da."

MOZIOA ONARTU DA (Talde Sozialistako 3 zinegotziak abstenitu egin dira)

7.- SAHARA HERRIAREN ALDEKO MOZIOAK. - - Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) mozio hau irakurri du:

Euskadin bizi diren saharar ikasle eta gazteen elkarteak Hernaniko Udaleko Talde honengana jo du Euskadi osoan zehar sortutako udal sare baten berri emateko. Sare horren helburua da otsailaren

27an udaletxeetan Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoaren banderak zintzilikatzea, egun horretan betetzen baita Saharako Estatuaren aldarrikatu zeneko 37. urteurrena.

Keinu horrek, zalantzarik gabe, are eta gehiago indartzen lagunduko du elkartasunaren eta giza eskubideekiko errespetuaren beharrezko printzipioen gainean duela hamarkada asko eraikitako Saharako herriaren eta Euskal Herriaren arteko elkartasuna.

Saharar herriak 40 urte inguru daramatza erbestean 2.700 metroko luzera duen harresi batez banandutako bi gunetan: herritarren zati bat erregimen marokoarraren mende dago eta bestea errefuxiatu egoeran, kanpotik datorkien laguntza humanitarioari esker bizi dela.

Nazioarteko komunitatearen ehunka ebazpenek berresten dute saharar herriak autodeterminaziorako duen eskubide legitimoa. Gaur egun oraindik ere gauzatu gabe daukan eskubidea, gauzatzeko zantzu argirik gabe jarraitzen duena. Bitartean, saharar herriak demokraziaren eta askatasun kolektiboen balore eta printzipioetan sinisten duten herritarren eta erakundearen elkartasuna jasotzen du.

Esandako guztiak kontuan hartuta, taldeak honako mozio hau izenpetzen du:

MOZIOA

Hernaniko Udaleko Osoko Bilkurak Saharako herriarekiko elkartasuna adierazten du eta Nazioarteko Komunitateari eta Marokoko eta Espainiako estatuei eskatzen die bila dezatela irtenbide bat herri honek bizi duen isolamenduarekin eta gabezia humanitarioarekin bukatzeko. Era berean, alkateari eskatzen dio Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren bandera zintzilikatzea otsailaren 27an udaletxeko balkoian, Saharako estatuaren aldarrikapenaren 37. urteurrena ospatzeko.

MOZIOA AHO BATEZ ONARTU DA.

EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDATIK KANPO, ETA GAIA PRESAZKOTZAT JO ONDOREN, PUNTU HAU AZTERTZEA ERABAKI DA AHO BATEZ:

8.- GIPUZKOAKO HONDAKINEN PARTZUERGOAK HARTUTAKO ERABAKIEN ONDORIOEI BURUZKO MOZIOA, UDAL TALDE SOZIALISTAK AURKEZTUA. - Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) mozio hau irakurri du:

Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak hartutako erabakien ondorioei buruzko mozioa, udal talde sozialistak aurkeztua:

Hondakinen Partzuergoak 2013ko otsailaren 8an egindako batzarrean hainbat erabaki hartu ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiak erakunde horretan daukan gehiengoaz baliaturik. Erabaki horiek kalte larriak eragin ditzakete Gipuzkoako toki entitateen diru-kutxa publikoetan.

Hartutako erabakiek lurralde plangintzan aurreikusitako hondakinen kudeaketako azpiegituren finantzaketa kontratu batzuk ez betetzea ekarriko lukete eta, ondorioz, Hondakinen Partzuergorako ekonomi eta finantza arloan eragin kritikoko arrisku bat hartzea. Erabaki horiek behar den adinako segurtasun juridikorik gabe, kontsentsu politikorik gabe eta partzuergokideekin kontatu gabe hartzea, kontuan hartuta egindakoak aurrera ez joatea gertatuz gero haiek oso kalteturik gertatuko lirakekeela, erakunde horren sorrera-printzipioak haustea suposatzen du.

Bestalde, otsailaren 8ko bilera horretan bertan, Partzuergoak estatutuen aldaketa egin behar izatea dakarten erabaki batzuk hartu zituen, eta horrek Txingudiko Mankomunitatea Partzuergoan sartzeari praktikan ia ezinezko egiten du. Eta dena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak epai baten aplikazio interesatuari esker, helburu bakarra Bilduri alde bakarrez jokatzeko aukera emango dioten gehiengo politiko urri batzuk mantentzea izanik .

Horiek guztiak horrela, Udaleko osoko bilkurak honako mozio hau onartu du:

MOZIOA

Lehena.- Udalak Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoari eskatzen dio lurraldeko hondakinen kudeaketari dagokionez hemendik aurrera hartzen dituen erabakiak adostu eta partekatu ditzala, batik bat diru-kutxa publikoei oro har eta udalaren diru kutxei bereziki ekonomia eta finantza aldetik kalte larriak ekar ditzaketenak.

Bigarrena.- Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoari eskatzen die ez dezatela legezko oztoporik jarri Txingudiko Mankomunitatea Hondakinen Partzuergoan sartzeari, Gipuzkoa osoko hiri hondakinen kudeaketaz arduratzeko duen bokazioari eusteko.

9.- GALDERAK ETA ESKARIAK. – Ez dira egiten.

Beste aztergairik ez dagoenez bilera 19:10 orduetan bukatu da, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.